



ABALTZISKETA

ABALTZISKETAKO ZABOR ONTZIEN ETA INGURUNEAREN EGOERA

Abaltzisketako zabor-ontziak dauden lekua eta zabor-ontziak jasotzen duten hondakinak ikusita lotsa emateko moduan gaudela esan daiteke.

Zabor ontzien ingurunean mota guztietako zaborra eta poltsak aurkitzen dira. Eta kanpo herrikoek direla esaten bada ere, oraindik herritarrek zuzentasunez ez dutela egiten esaten da.

Tolosaldeko Mankomunitateak egin duen balorazioan, Abaltzisketako errefuxa ontzietan honako hondakinak aurkitu dira: %38 sukaldeko hondakinak, %14 baratza eta lorategiko hondakinak, %3 beira, %7 papera eta kartoia, %10 plastiko arinak, %2 hondakin arriskutsuak eta %22 errefuxa. Hemen ikusten da, edukiontzi honetan, egon behar ez duen zenbait hondakin daudela sailkatu ez delako.

Edukiontzien ingurunea garbitze lanak ere behin baino gehiagoetan egin dira eta bertan zabor poltsetatik ateratzen diren hondakinak ikusten dira. Gehienetan paperak dira eta gainera paper hauen bidez jakiten da noren zabor poltsa den. Horregatik esan dezakegu, zabor poltsak, denak kanpokoak ez direla, herrikoak ere ikusi ditugulako.

Horregatik, eskatzen zaizue, zaborrak ondo sailkatzeko, papera, plastiko eta beira ondo sailkatzea ez da zaila. Zalantzarik izango bazenute ere, laguntzeko gaudela jakin ezazue, baina lotsagarria da errefuxaren ontzia azertu eta atera diren emaitzak ikustea. Gure jarrera zuzendu beharrean aurkitzen gara.

Beteko dugulakoan gaude.

Udala